



# EUSKARARI BIDE EGITEN

2018. urteko txostena





# Tresna berritzaileak

## hobelex



**Aho bateko** ez erabiltzea gomendatzen du Euskaltzaindiak; ik. **ahobatezko**

 [hobelex.eus](http://hobelex.eus) zuzentzaile eguneratua

Ez da **ahobatezko** erabakia izan.

- Ez da zuzena, erabili
- ahobatezko
- Erakusi egin

## Microsoft Office 2016rako egokitutako euskarazko lehen zuzentzaile automatikoa

Zuzentzaileen arloan berriro ere aurrea hartu, eta Euskaltzaindiak bere hiztegian egindako aldaketan arabera eguneratu dugu Hobelex otsailean: guztira, 31 forma berri eta 446 zuzenketa. Gainera, azken urteotan euskal erabiltzaileek izan duten hutsune bat bete dugu aurten, Microsoft 2016 bertsioarentzat egokitutako euskarazko lehen zuzentzailea bihurtu baita.



# Euskal profesionalen zerbitzura

## Euskalgintzarako tresna profesionalak

Euskararen kalitatea elkarrekin sendotzeko hitzarmena sinatu dugu Berria Taldearekin. Besteak beste, hitzarmen horretan adostua dute UZEIk eta Berria Taldeak IDITE lexiko-egiaztatzaile profesionala erabiliko duela Berria egunkariak euskarazko lexikoaren erabilera zuzena egiaztatzeko. Beste erakunde askoren artean, Euskaltzaindiak ere IDITE aukeratua du bere lanen araukiko adostasuna egiaztatzeko.



## Justizia-administrazioa euskalduntzeko lanean

*Prozedura Zibilaren Legea* itzuli dugu aurten *Auzia Euskaraz* proiektuaren baitan.

Eusko Jaurlaritzaren Justizia Sailaren barruan **Legeen itzulpenak normalizatzeko batzordean** lanean jarraitu dugu. Batzorde horretan daude elkarrekin Justizia Saila, UZEI, IVAP, EHU, Deustuko Unibertsitatea, Abokatuen elkargoak, epaileak, itzultzaileak...

Epaitegietako idazki-ereduak itzultzen jarraitu dugu.

Azkenik, aurten ere «**Zuzenbideko profesionalak trebatzen**» ikastaroa eman dugu, IVAPek antolatuta.





# Izan zaretelako gara

## Lau hamarkadako ibilbidea

UZEIko lehen zuzendari Joseba Intxaustik, Joxe Azurmendik, Joan Mari Torrealdaik, eta Paulo Agirrebaltzategik jaso dute Gipuzkoako Foru Aldundiak Jakin Fundazioari aurten emandako Urrezko Domina. Euskaingintzaren lau izen handi horiek bezala, Jakinek zuzeneko lotura izan du UZEIrekin sorreratik bertatik: besteak beste, 1974an Jakin Taldeak eta Aranzadi Elkarteko lantalde batek landutako *Natur Zientziak* hiztegia izan zen UZEIren lehen hiztegi terminologikoen aitzindari eta eredu. Bide luzeko lan oparoa omendu du, beraz, aurten Gipuzkoako Foru Aldundiak.



Trudiaren iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. CC 4.0

## Horrelakoak ginen duela 20 urte

Iaz *Larretik Noranahi* dokumentalarekin hasitako bideari jarraituz, 40 urte bete berri ditugun honetan duela 20. urteurrenerako prestatu genuen diaporama berreskuratu eta sarean jarri dugu. Horrek balio izan digu urteak ez direla alferrik igaro ohartzeko, baita azken bi hamarkada hauetan euskarak eta UZEIk egin duten bide luzea gogoratzeko ere.





# Izan zaretelako gara

## Ohorezko euskaltzaina, euskaltzain osoa, eta euskaltzain urgazlea

Gure lankide Miriam Urkia euskaltzain oso izendatu du Euskaltzaindiak otsailean, Jose Antonio Aduriz ohorezko euskaltzain maiatzean, eta Ainhoa Arregi euskaltzain urgazle uztailean.

Lexikografian, corpusgintzan, morfologia konputazionalen eta hizkuntza-teknologietan aditua da Miriam Urkia. Euskal Filologian doktorea da, eta UZEIko Lexikografia Sailaren ardura du 1992tik.

Euskaltzaindiak izendatu berri dituen 16 ohorezko euskaltzainen artean UZEIren lehen urteetatik erretiroa hartu arte lankide izan dugun Jose Antonio Aduriz lexikografoa dago. Urte horietan guztietan lan isila egin du Adurizek, eta Euskaltzaindiak ohar bidez esan duen bezala, «*Hiztegi Batua* eta *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren* zutabe nagusietako bat izan da».

Ainhoa Arregi ere urte luzez aritu da UZEIren

Lexikografia Sailean; 2010etik Euskaltzaindiaren Hiztegi Batua lantaldeko kide da, eta 2017tik Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak lantaldeko kide. Hainbat lexikografia-proiektutan eta corpusgintzan parte hartu du, eta hizkuntzaren tratamendu informatikorako datu-base lexikalak ere kudeatzen ditu UZEIn, beste lan batzuen artean.





# Hiztegi gintzan aurrera

## Prestalana hiztegi gintzan, eta corpus gintzan lankide

Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak lantaldearen ardura du UZEIko Lexikografia sailak, eta horretan jardun du aurten ere, aztergaia prestatzen, formen historialak biltzen, bilerak gidatzen eta aktak osatzen, bai eta hiztegi korredaktoreekiko koordinazioa bideratzen ere. *Lexikoaren Behatokia* corpusa elikatze ko katalogazio-lanak ere osatu ditu aurten. 2018ko lanen emaitza helbide honetan ikus daiteke: <http://lexikoarenbehatokia.euskaltzaindia.eus/>



## Euskaltermerako landutako hiztegi terminologiko berriak denon eskura

Euskalterm terminologia-banku publikorako landu ditugun 9 hiztegi terminologiko argitaratu ditu Eusko Jaurlaritzak: *Ehiza eta Arrantza Hiztegia, Garraioa eta Logistika Hiztegia, Hiesa Hiztegia, Azokak, Biltzarrak eta Jendaurreko Ikuskizunak Hiztegia, Mendekotasuna Hiztegia, Mineralak Hiztegia, Sare Sozialak Hiztegia, Telefonía Hiztegia, eta Traumatología Hiztegia*. Hiztegi horiek guztiak Terminología Batzordeak onetsi ditu, eta [www.euskadi.eus/euskalterm](http://www.euskadi.eus/euskalterm) helbidean kontsulta daitezke, eta bertatik deskarga daitezke PDF formatuan.

Hiztegi terminologiko horiekin batera, eguneroko bizitzan hainbat esparrutan erabiltzen diren, edo erabil daitezkeen, esaldien bilduma bat ere plazaratu du Jaurlaritzak *Hizketa-ereduak* izeneko liburuan, hori ere UZEIk landua.






# Mundua digitala da

## Bi aplikazio mugikor berri

UZEIren *Sinonimoen Hiztegiaren* eta *Atzekoz Aurrera hiztegiaren* Android aplikazio berriak doan deskarga daitezke Google Play ataritik. Etengabe eguneratzen dugun *Sinonimoen Hiztegia* lexikoa osatzeko eta testuinguru bakoitzak eskatzen duen hitz egokia hautatzen laguntzeko tresna erabilgarria da, eta horretarako baliatzen dute hilero milaka lagunek hilero. 26.703 sarrera sinonimodun (eta 30.268 adiera) kontsulta daitezke aplikazio mugikorraren bidez.

Bertsogintzari begira prestatu dugu *Atzekoz Aurrera* Android aplikazio berria. 1994an argitaratu zen hiztegia lehen aldiz eta, 2017an, erabiltzaileek hala eskatuta, sarean kontsultagai jarri genuen edizio berritua, osatze-lan eta eguneratze sakon bat egin ostean. Hiztegiaren lehen bertsiotik bertatik, bertsozaleak izan dira, beharbada, gehien erabili dutenak, eta edizio berritua sarean jartzeko eskaria ere bertso-mundutik egin zen, gehien bat. Interes horren adibide, Bertsozale Elkartearen laguntza izan du UZEIk *Atzekoz Aurrera* aplikazio mugikorraren hedapena egiteko, bi erakundeon arteko lankidetzari baliatuz.



## *Sinonimoen Hiztegi*an gero eta kontsulta gehiago






# Mundua digitala da

## *Mundu Mapa Digitala* diru-izenekin osatu dugu.

Lotia ez da lo asko egiten duena soilik, diru-unitate bat ere bada. 146 diru-unitate desberdin gehitu dizkiogu Mundu-mapa digitalari, Google Maps zerbitzua erabiliz UZEIk eskaintzen duen baliabidean. Beraz, hemendik aurrera, herrialdearen izenak, herritarrak, hiriburuak, hiriburuetako herritarrak, hizkuntza ofizialak, eta orain diru-izenak kontsulta daitezke [www.uzei.eus/mundu-mapa](http://www.uzei.eus/mundu-mapa) helbidean.






# Etorkizuna prestatzen

## Euskararen etorkizuneko erronkak

Euskaltzaindiak bere 100. urteurreneko ospakizunen artean, XVII. Nazioarteko biltzarra egin du Arantzazun, eta bertan parte-hartze nabarmena izan du UZEIko lantaldeak. Miriam Urkiak Euskaltzaindiaren izenean eman du hitzaldia, eta Ainhoa Arregi eta Axlor Elortzak, eta Iker Etxebestek, berriz, hizkuntza naturalaren prozesamenduaren erronkez eta terminologia berriaz, hurrenez hurren. Hiru eguneko biltzarraren amaieran, Jon Etxabe lehendakariak sinatu du UZEIren izenean Euskara batuaren adierazpena, Euskaltzaindiak euskal gizarteari aurkeztu diona.





# Etorkizuna prestatzen

## Europako terminologia-gailurra, lehen aldiz Euskal Herrian, UZEIk antolatuta

Europako Terminologia Elkarteak azaroan Donostian egin zuen gailurra antolatzeaz arduratu da UZEI. Terminologia Gailurra bi urtean behin egiten da Europako leku desberdin batean, eta bertan biltzen dira Europar Batasunean eleaniztasuna sustatzeko plataforma sendo baten alde terminologiaren arloan lan egiten duten erakunde eta organismo guztiak. EAFT Europako Terminologia Elkartearen kide da UZEI, eta hori dela eta, aurreko lehen aldiz egin da Euskal Herrian. Besteak beste, Norvegia, Finlandia, Eslovenia, Suitza, Suedia eta Kroaziatik iritsitako adituak elkartu dira Donostiako Kursaal Jauregian, baita Kataluniakoak eta Euskal Herrikoak ere. Horrela, euskarazko terminologiaren arloan egindako lana nazioartean ezagutarazteko baliagarria izan da gailurra. Besteak beste, terminoen ezarpena neurtzeko UZEIk garatutako teknologiak izan dezakeen erabilgarritasunaz hitzaldia eman du Iker Etxebeste terminologoak.





# Sarean gaude

## Sare sozialetan erabiltzaileengandik hurbilago

«Egunez egun hitzari bide eginez» leloa dugu gidari sare sozialetan, eta gure jarraitzaileei egunerokotasunarekin lotura izan dezaketen gaiak aitzakiatzat hartuta, lexikoa aberasten eta euskara hobeto erabiltzen laguntzea dugu helburu. Baita gure lana ezagutaraztea ere, noski. Orain arte Twitterren, Facebooken eta Youtuben ibili gara, eta orain, gainera, bide berriari ekin diogu Instagramen. Mastodon sare sozialean ere bai, edo, zehazkiago esateko, Mastodon.eus-en. Mastodon sare sozialeko euskarazko bertsioa (edo «instantzia») da Mastodon.eus, euskararen eta euskal kulturaren komunitatearentzat aurten hainbat eragilek elkarlanean sortutakoa..





# Sarean gaude

Euskal terminologia elkarlanean  
mundura zabaltzen






# Talde-lana

2018an ere elkarrekin egin dugu UZEI. Eskerrik asko denoi!

## Lantaldea

Ainhoa Arregi  
Ainhoa Leunda  
Alaitz Etxebeste  
Aloña Iribar  
Arantxa Iruretagoiena  
Axlór Elortza  
Bego Arrate  
Blanca Irazabal  
Edurne Labaka  
Iker Etxebeste  
Imanol Urbietta  
Joxean Zapirain  
Leire Ibarra  
Miriam Urkia  
Nekane Rodriguez  
Urko Azpitarte



## Bidaide izan ditugu:



Irabazi-asmorik gabeko eta onura publikoko erakundea gara.

104 bazkide

5.000 jarraitzaile inguru sare sozialetan





UZEI